



ABALTZISKETA

2017KO UZTAILAREN 27KO OHIKO BILKURAKO AKTA

Organoa: Abaltzisketako Osoko Bilkura.

Lekua: Abaltzisketan

Ordua: 19:00etan

Deialdia: Lehenengoa

Bildutakoak: Jon Zubizarreta. Alkatea

Adur Gorostidi. Zinegotzia

Jose M^a Egunez. Zinegotzia

Mikel Senperena. Zinegotzia

Kepa Gorostidi. Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

GAI ZERRENDA

1. 2017ko ekainaren 1eko bilkurako akta onartzeka hala balegokio.
2. Izenpe txartela Abaltzisketako udalarentzako eskuratzeko eta ondoren, herritarrei elektronikoki harremana izateko aukera eskaintzeko kolaborazioa egingo du, eta akordioa hau jasotzen duen hitzarmena onartzea.
3. Udala eta Jaurlaritzaren arteko datuak elkarbanatzeko onartutako hitzarmenari eranskina onartzea.
4. Alkateak emandako ebazpenen berri ematea
 - 2017-19.- Maiatzeko ordainketak
 - 2017-20.- Sasiain barreneko lizentzi eskaera
 - 2017-21.- Ermentaineko lizentzi eskaera
 - 2017-22.- Haritzegaineko lizentzi eskaera
 - 2017-23.- Ekaineko ordainketak
5. Liburutegirako langilea hautatzeko bete beharreko baldintzak ezartzea.
6. Olano handiko obra txikirako lizentzi eskaera.
7. Eudelen gomendioa Udalhitz konbenioa aplikatzerakoan %1eko igoera onartzea
8. 2017/01 kreditu aldaketa onartzea.



ABALTZISKETA

9. Galderak eta eskaerak.

1- 2017-06-01EKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA HALA BALEGOKIO

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2017-06-1eko Bilkurako aktaren izenburuak irakurtzeari ekiten zaio. Bertan, hitzez hitz irakurtzen ez bada ere, izenburuak komentatu eta laburtzen dira. Mahaikideen aldetik aurkakorik esan ez denez, dagoen bezala onartutzat eman da.

2.-IZENPE TXARTELA ABALTZISKETAKO UDALARENTZAKO ESKURATZEKO ETA ONDOREN, HERRITARREI ELEKTRONIKO HARREMANA IZATEKO AUKERA ESKAINTZEKO KOLABORAZIOA EGINGO DU, ETA AKORDIOA HAU JASOTZEN DUEN HITZARMENA ONARTZEA.

Administrazioak herritarrei beren tramiteak elektronikoki egiteko aukera bermatu behar diola eta udalak Izenperekin lankidetzat hitzarmena sinatuko du, identifikazio eta sinadurako bitarteko elektronikoak jaulkitzen, eta erregistro-erakundetzat jarduera burutze ondorioetarako.

Horretarako ondorengo hitzarmena sinatzea proposatzen da:

BILDUTA

Alde batetik, **IZENA 1. ABIZENA 2. ABIZENA** jauna/andrea, ERAKUNDEKO KARGUA, haren izenean eta beraren ordezkari gisa.

Aurrerantzean, ERAKUNDEA.

Bestetik, **IZASKUN URRESTARAZU AMONDARIAN andrea**, *Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios*, **IZENPE, SA** sozietateko zuzendari nagusia, sozietatearen izenean eta haren ordezkari gisa.

Aurrerantzean, Izenpe.



ABALTZISKETA

Bi aldeek hitzarmen hau sinatzeko behar adinako ahalmen juridikoa aitortzen diote elkarri eta, horren indarrez, honako hau

AZALDU DUTE

1. *Lineako ingurunean konfiantzazko giroa sortzea funtsezkoa da ekonomia eta gizartea garatzeko. Mesfidantzak (zehazki, antzemandako segurtasun juridikorik ezaren ondoriozkoak) zalantzan jarrarazten ditu kontsumitzaileak, enpresak eta administrazio publikoak bide elektronikoaren bitartez transakzioak egiteko eta zerbitzu berriak bereganatzeko garaian.*

1. kontuan hartuzkoa, 910/2014 Araudia (EB), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko uztailaren 23koa, barne-merkatuko identifikazio elektronikoari eta transakzio elektronikoetarako konfiantzazko zerbitzuei buruzkoa, eta 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.

Zalantzarik gabe, lehen kontuan hartuzko horrek leialki jasotzen du Europako barne-merkatuaren egoera sozioekonomikoa. Egungo gizartea gizarte heldua da, herritarren, enpresen eta administrazio publikoen artean elkarreragin elektronikoak lortzeko gai izango den merkatu digital bakarra sortzeko prestatua; gizarte hau gauza da lineako zerbitzuetan eta negozio elektronikoetan eraginkortasun handienera iristeko; eta, azken batean, sozietate honek erabateko konfiantza du merkatu digital bakarrean.

2. Esparru arauemaile berri horrek erabateko garrantzia ematen dio, identifikazio eta autentifikazio elektronikoaren segurtasunari ez ezik, elkarreragingarritasunari ere; halakotzat ulertuta informazio-sistemek eta horiek eusten dituzten prozedurek duten ahalmena datuak partekatzeko, elkar ezagutzeko eta informazio- eta ezagutza-trukea fidagarritasunez eta segurtasunez ahalbidetzeko.

Araudiaren xede dira, era berean, konfiantzazko zerbitzuak (halakotzat ulertuta sinadura elektronikoak, zigilu elektronikoak, denbora-zigiluak, entrega-zerbitzuak edo webguneen ziurtagiriak sortu, egiaztatu eta baliozkotzea), lineako ingurunean konfiantza eta segurtasun juridikoa sortzen laguntzen duten heinean.

Konfiantzazko zerbitzu kualifikatuen eta konfiantzazko zerbitzuen emaile kualifikatuaren kontzeptuak sartuta, legegilearen asmoa da herritarrengan konfiantza areagotzea, zerbitzu edo produktu kualifikatuen segurtasun-maila handia ziurtatuko duten eskakizunak eta betebeharrak zein diren adieraztearren.

3. Esparru horretan Izenpek sortzen dituen identifikazio eta sinadura elektronikoko bitartekoek harpidedunei eta, hala badagokio, gakoan edukitzaileei ere aukera ematen diete modu elektronikoan harremanetan jartzeko administrazio publikoekin, erakunde erabiltzaileekin eta haiek erabiltzea onartu duten instituzio publiko eta pribatuekin, baita azken horien artean ere.

Izenpek, ziurtagirietan oinarritutako identifikazio- eta sinadura-bitartekoez gainera, baditu ziurtagirietan oinarritu gabeko identifikazio-tresnak.

4. **HIRUGARREN ALDEAK** interesdunen identifikazio eta sinadura elektronikoko sistematzat onartzen ditu bai ziurtagirietan oinarritutako sistemak, bai beste edozein sistema.



ABALTZISKETA

5. Ondorioz, helburu izanik interesdunei aukera ematea Izenpek jaulkitako bitarteko elektronikoak erabiltzeko, bi aldeek interesa dute jarraian adierazten diren klausulen arabera lankidetzan aritzeko.

KLAUSULAK

1. LEHENA.- XEDEA

HIRUGARREN ALDEA Izenperekin lankidetzan arituko da identifikazio eta sinadurako bitarteko elektronikoak jaulkitzen, eta erregistro-erakundetzat jardungo du.

Erregistro-erakundetzat jarduteak berekin ekarriko du zeregin hauek egitea: erabiltzaileen nortasuna egiaztatzea, erregistro-erakundean jasotako inguruabarren ziurtagiriak egiaztatzea, eta igortzeko, ezeztatzeko/baliogabetzeko eta berritzeko eskaerak baliozkotu eta onartzea.

2. BIGARRENA.- INDARRALDIA

Hitzarmen honek urtebeteko indarraldia izango du, berori sinatzen denetik hasita, eta automatikoki berrituko da idatziz eta fede emanez salatzen ez badu aldeetako edozeinek, betiere epemuga baino bi hilabete lehenago gutxienez.

3. HIRUGARRENA.- BETEBEHAR EKONOMIKOAK

Hitzarmen honek ez du sorraziziko betebehar ekonomikorik aldeetako inorentzat.

4. LAUGARRENA.- ALDEEN BETEBEHARRAK

Izenpek

- [Ziurtapen-jardunbideen deklarazioan](#) esleitzen zaizkion betebeharrak beteko ditu.
- Konpromisoa hartzen du hitzarmen honen xede diren zerbitzuak egiteko, oinarri hartuta eraginkortasunaren, kalitatearen, segurtasunaren eta gardentasunaren printzipioak.

HIRUGARREN ALDEAK

- Erregistro-erakundearen zereginak egingo ditu, *Izenperen Ziurtapen-jardunbideen deklarazioan* ezarritakoari jarraituz.
- Konpromisoa hartzen du bere jardunean oinarri hartzeko eraginkortasunaren, kalitatearen, segurtasunaren eta gardentasunaren printzipioak.



ABALTZISKETA

- Bete egingo du [Izenperen hornitzaileen segurtasun-politika](#).

5. BOSGARRENA.- ALDEEN ERANTZUKIZUNA

Izenpek

- Hemen zehaztutakoa egoki betetzeaz erantzungo du.
- Hitzarmen honen ondoriozko bere betebeharrak ez betetzearen ondorioz eragiten dituen kalteen erantzulea izango da.
- Zehazki, konfiantzazko zerbitzuen egile gisa, bere jardueraren eraginez edozein pertsonari eragiten dizkion kalte-galerei erantzungo die, baldin eta hitzarmen honek edo konfiantzazko zerbitzuen alorrean aplikatzekoa den legeriak ezartzen dizkion betebeharrak betetzen ez baditu edo arduragabekeriak jarduten badu.

HIRUGARREN ALDEA erantzule izango da,

- Izenperen aurrean, hitzarmen honetan zehaztutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz eragiten dituen kalteak direla eta.
- Zerbitzua egoki erabiltzeaz, hitzarmen honetan zehaztutakoaren arabera.
- *Ziurtapen-jardunbideen deklarazioan* zehaztutakoa betetzeaz, aplikatzekoa den guztian.

6. SEIGARRENA.- DATUEN BABESA

- I. Aplikatzeko datu pertsonalen babes-erregimena izango da *Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Legean* (aurrerantzean, DBLO) eta hori garatzen duten arauetan aurreikusitakoa.

Zehazki, Izenpek (aurrerantzean, *Erantzulea*) izango du hitzartutako zerbitzuen datuak tratatzen dituzten fitxategien ardura, DBLOaren arabera.

Fitxategi horiek Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren Erregistro Nagusian deklaratura daude.

Izenpek datu pertsonalei aplika dakizkiekeen segurtasun-neurriak bermatuko ditu, izaera teknikokoak zein antolamendukoak, betiere Izenperen segurtasun-politikako dokumentuan ezartzen denari jarraituz.

- II. Hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera Izenperen erregistro-erakunde gisa diharduenean, **HIRUGARREN ALDEA** izango da tratamenduaren arduraduna (aurrerantzean, *Arduraduna*), DBLOaren 12. artikulua arabera.

Arduradunak



ABALTZISKETA

- Ezin izango ditu datu horiek erabili hitzarmen honetan adierazitako xedeaz bestelako xede baterako.
- Hitzematen du datuak *Erantzuleak* adierazten dizkion jarraibideen arabera tratatuko dituela (kasu honetan, segurtasun-arduradunaren aginduak dira).
- Ez dizkie inola ere datuak jakinaraziko, erakutsiko, lagako edo emango harremanaz kanpo dauden hirugarren pertsoneri, ezta kontserbatzeko badira ere.
- Hitzematen du indarrean dagoen eta aplikatzekoa zaion datuak babesteari buruzko legerian xedatutako guztia beteko duela.
- Gauzak horrela, *Arduradunak* edo haren mendekoetako edozeinek hitzarmenaren ondorioz ezagutzen duen datu oro erabat konfidentziala da, eta ezin izango die jakinarazi hirugarren batzuei, ezta norberak erabili ere. Berarentzat eta eraginpean daudenentzat sor daitezkeen kalteengatik erantzun beharko du.
- Ziurtatzen du bere kargura dauden langileek konfidentzialtasun-klausula bat sinatu dutela, eta, hori dela-eta, langile horiek hitzeman dutela bere karguaren edo zereginaren ondorioz ezagutzen duten informazioaren berri emango ez dutela, hitzarmen hau gauzatzen den bitartean zein ondoren.
- Hitzarmen honen ondoriozko daturen bat mantentzeko baimena jaso badu, zerbitzugintza amaitutakoan datu hori *Erantzuleari* itzuli edo, hala badagokio, suntsitu egin beharko du, baita datu hori jasoarazten duen euskarria edo dokumentua ere.
- Bestalde, DBLOan jasoarazten den erantzukizun-erregimenaren mende izango da, eta pertsonalki erantzun beharko du, baldin eta datuak hitzarmen honetan adierazitako xedeaz bestelako xede baterako erabiltzen badira, hirugarren batzuei datuen berri ematen badie, edo hitzarmen honetako klausularen bat bete gabe erabiltzen baditu.
- Indarrean dagoen datuak babesteari buruzko araudiak ezartzen dituen bidezko segurtasun-neurriak –fisikoak, logikoak eta antolamendukoak– ezarri beharko ditu. Zerbitzugintzan eskura dituen datu pertsonalen arabeko neurriak izango dira.

Erantzuleak, egoki baderitzo, datuak babesteari buruzko ikuskapen-txostena eskatu ahal izango du urtero. Ikuskapen horren mende izango dira zerbitzugintzako datu pertsonalen tratamendu automatizatuan esku hartzen duten pertsonak, fitxategi automatizatuak, tratamendu-zentroak, lokalak, ekipamenduak, sistemak eta programak.

Txosten horretan banakatuta jasoko dira, batetik, kontratatutako zerbitzuak eta, bestetik, DBLOaren eta segurtasunari dagokion haren garapen-araudiaren betetze-maila.

Ikuskapena arduradunak eta erantzuleak aurretik onartutako aditu independenteek egingo dute. Edonola ere, haien ingurunean izen handiko profesionalak izango dira.

Arduradunak hitz ematen du datuak babestearen alorreko aldirian behingo ikuskapenak egin ahal izateko moduko informazio-sistemak eta -aplikazioak ezarriko dituela.



ABALTZISKETA

7. ZAZPIGARRENA.- KONFIDENTZIALTASUN KLAUSULA

Hitzarmen honetan zehaztutako xedearen ildotik, aldeek informazio eta/edo dokumentazio konfidentziala izan dezakete eskura. Konfidentzialtasun horri eusteko, bi aldeek konpromisoa hartzen duten jarraian adierazten diren hitzarmenak betetzeko.

- Eskura duten tratatutako informazio eta/edo dokumentazio guztiaren gainean ahalik eta erreserbarik handiena mantentzeko eta isilpean gordetzeko konpromisoa hartzen dute. Bi aldeek informazio hori konfidentzialtzat joko dute ondorio guztietarako.
- Ez diete inola ere hirugarren batzuei eskura duten informazioaren eta/edo dokumentazioaren berri emango, ezta informazioa gordetzeko ondorioetarako ere. Zehazki, hirugarren pertsona batzuei ez diete inoiz ere lanen barruan haiengana irits daitekeen edozein motatako informazioa emango, baldin eta ez badute hori egiteko beste aldearen aurretiazko adostasun idatzirik.
- Era berean, konfidentziala izango da hitzarmen honen ondoriozko informazioaren inguruan aldeek jaulkitako edozein txosten edo ahozko zein idatzizko jakinarazpen. Ezin izango zaie hirugarren batzuei erakutsi eta ezin izango da banatu edo jendaurrean aipatu beste aldearen aurretiazko eta idatzizko baimenik gabe.
- Ematen zaien edo eskura duten informazioaren segurtasuna (integritatea, eskuragarritasuna eta konfidentzialtasuna) bermatzeko beharrezko neurri tekniko guztiak mantenduko dituzte une oro, baita antolamendu-neurri guztiak ere. Kasuak kasu agintzen zaizkien lanak, proiektuak, zerbitzuak eta eskariak egiten diren bitartean, informazioa aldatzea, galtzea, tratatzea edo baimenik gabe sartzea saihestuko dute.
- Haien langileek egiten dituzten zereginak hitzarmen hau betetzeko behar-beharrezkoak diren zereginetara soilik eta berariaz mugatuko direla bermatu dute. Era berean, hitzarmen honetan ezarritako betebeharrak eta eskura duten informazioa tratatzearekin lotzen diren betebeharrak jakinarazi beharko dizkiete haien langileei eta laguntzaileei. Zehazki, betebeharrak betetzen direla bermatzeko, behar beste ohar luzatuko dizkiete haien langileei eta beharrezkoak diren dokumentu guztiak izenpetuko dituzte.
- Aldeek onartzen dute eta bere gain hartzen dute informazioa soilik eskuratu eta tratatuko dela hura eskuratzea beharrezkoa bada hitzartutako lanak, proiektuak, zerbitzuak eta/edo eskariak egiteko.

Informazio hori eskuratu eta tratatzean, ezarritako politika, arau eta prozedura guztiak errespetatuko dituzte, **HIRUGARREN ALDEAK** bere aldetik ezarritako politika, arau eta prozedura guztiak baztertu gabe. Azken horiek ere nahitaez bete beharko dira segurtasun-maila handitzen badute.

Kasuak kasu erabakitzen diren lanak, proiektuak, zerbitzuak eta eskariak egiten amaitu ostean, edozein formatutan jaso duten informazio guztia itzuli edo suntsitu beharko dute. Ezin dute inola ere gorde informazio horren guztiaren edo zati baten kopia, ezta agindutako lanak, proiektuak, zerbitzuak eta eskariak betetzearen ondorioz sor daitekeen bestelako informazioaren kopia ere.

- Bermatuko dute konfidentzialtasunaren eta sekretu profesionalaren betebeharrak iraun egingo duela hitzarmen hau amaitu ostean ere edozein kausagatik amaitzen delarik. Betebeharrak, beraz, iraupen mugagabea izango du.



ABALTZISKETA

8. ZORTZIGARRENA. – KONTRATUA DEUSEZTATZEA

Kontratua amaituko da, legez ezarritako eta klausuletan xedatutako kausez gain, honako kausetako bat suertatzen denean:

- Bi aldeen arteko adostasuna.
- Aldeetako batek kontratuaren ondoriozko betebeharrak ez betetzea.
- Izenpek ezarritako zuzentzarauak ez betetzea.

Lehen adierazitako kausengatik edo zuzenbidean onartutako beste edozeinengatik kontratua deuseztatu edo deseginez gero, **HIRUGARREN ALDEA**k bete egin beharko ditu kontratu hau deuseztatu aurretik Izenperen aurrean eta hirugarren batzuen aurrean bere gain hartutako betebeharrak.

9. BEDERATZIGARRENA.- ALDAKETA ETA JARRAIPENA

Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean aldaketak egin daitezke, betiere izenpetzen duten alderdiek elkarrekin adostuta, eta erabakitako aldaketak hitzarmenari gehituko zaizkio eranskin moduan.

10. HAMARGARRENA.- JURISDIKZIOA

Hitzarmen hau interpretatzean edo gauzatzean, bi aldeen artean sortzen den edozein auzi ebazteko Gasteizko auzitegien eta epaitegien mende jarri beharko da.

Adostasun-froga gisa, bi aldeek sinatu dute hitzarmen hau.

	<p>IZASKUN URRESTARAZU AMONDARIAN and.</p> <p>Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Enpresa de Certificación y Servicios, IZENPE, SA</p>
--	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------



ABALTZISKETA

Mahaikideek ERABAKI DUTE:

1. Izenpe S.A sozietatearekin udalak hitzarmena sinatzea, bertan jasotzen diren helburuak betetzeko eta klausulak errespetuaz.
2. Udaleko alkatea hitzarmena sinatzeko baimentzea.

3- UDALA ETA JAURLARITZAREN ARTEKO DATUAK ELKARBANATZEKO ONARTUTAKO HITZARMENARI ERANSKINA ONARTZEA.

Abaltzisketako Udalak, Jaurlaritzarekin datuak elkarbanatzeko hitzarmena sinatu zuen. Orain hitzarmenaren osagarri bezala, Jaurlaritzak Estaduko administrazioarekin sinatutako hitzarmenari atxikitzea proposatu da.

Hitzarmenaren edukia ondorengoa da:

ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN ESPARRUKO OINARRIZKO IRTENBIDEAK ELKARRI EMATEKO ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREKIN 2017KO MARTXOAREN 24AN SINATU DEN LANKIDETZA-HITZARMENARI ATXIKITZEKO PROTOKOLOA

Alkatearen izen-abizenak jaunak, Alkate gisa, **XXXXX**ko Udalaren ordezkari, hauxe

ADIERAZTEN DU:

XXXXXko Udaleko _____ (organo eskuduna)(a)k **XXXX**(e)(a)n erabaki du administrazio elektronikoaren oinarrizko irtenbideak elkarri emateko Estatuko Administrazio Orokorrarekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenari atxikitzea, jarraian zehazten diren baldintzei jarraituta eta hitzarmenaren 1.2 klausularen arabera. Hitzarmen hori 2017ko apirilaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 76 zenbakikoan, argitaratuta dago, eta 2017ko martxoaren 24an sinatu zen.



ABALTZISKETA

XXXXXko Udalak hitzarmena ezagutu eta erreparorik gabe onartzen du, hari atxikitzeari dagozkion alderdi guztietan; horrez gain, konpromisoa hartzen du hitzarmenean jasotako betebeharrak betetzeko, alderdi sinatzaileek ematen dituzten administrazio elektronikoen oinarritzko irtenbide teknologikoak (bigarren klausulan zerrendatu dira) edo eguneratu edo etorkizunean aldatzen direnak eskuratzeari eta erabiltzeari dagokienez. Horrez gain, bere eskumenen arloan, hitzarmenean Euskal Autonomia Erkidegorako ezarritako betebeharrak ere bere gain hartzen ditu.

Horren guztiaren ondorioz, honako hau

ESKATZEN DU:

XXXXXko Udala, toki-erakunde horren ordezkari izanik, administrazio elektronikoen esparruko oinarritzko irtenbideak elkarri emateko Estatuko Administrazio Orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an sinatutako lankidetzaz hitzarmenari atxikitzea, lehenengo klausularen 2. atalean aurreikusitakoaren arabera.

Sinadura: **Alkatearen izen-abizenak**

XXXXXko Udaleko alkatea

Mahaikideek aho batez ERABAKI DUTE:

1. Administrazio elektronikoen esparruko oinarritzko irtenbideak elkarri emateko estatuko administrazio orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an sinatu den lankidetzaz hitzarmenari atxikitzeko protokoloa onartzea.
2. Erabakiaren berri Jaurlaritzari jakinaraztea eta elkarren artean hitzarmena sinatzea.
3. Hitzarmena sinatzeko Alkatea baimentzea.

4- ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkateak luzatu dituen ondoren ebazpenen berri eman da:



ABALTZISKETA

Alkateak, ondorengo ebazpenak eman dituela jakitera eman da:

2017-19.- MAIATZEKO ORDAINKETAK

Ikusirik, maiatzeko fakturen zerrenda aurkeztu dela onartzeko, 6.079,23 eurotakoa, hain zuzen ere.

Apirilaren 2ko 7/1985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D. Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuz.

EBAZTEN DUT:

BAT: Dekretu honi eransten zaion, 6.079,23 eurotako faktura zerrenda onartzea ordainketak egiteko.

BI: Erabakiaren berri hurrengo osoko Bilkuran ematea.

2017-20.- SASIAIN BARRENEKO LIZENTZI ESKAERA

SASIAIN BARRENA BASERRIAN JARDUERA BURUTZEKO HAINBAT EGOKITZAPEN ONARTZEA

Ikusirik, Sasiain barrena baserrian dagoen jarduera barruan hainbat handipen egin nahi direla.

Ikusirik baratzara bideratuko duten eremua 2500 m2 ingurura iristea aurreikusten dela, 560 m2 negutegi eta 4000 m2 frutalak eta 4000 m2 fruitu txikiak izango direlarik.

Ikusirik, lan hauek burutzeko honako inbertsioak aurreikusten dituela:



ABALTZISKETA

INBERTSIO BERRIAK

NEGUTEGIA 298 M2	4.464,36 euro
DRENAJEA	602,18 euro
LUR MUGIMENDUAK NEGUTEGIKO PLATAFORMA.	1.2146,00 euro
LUR MUGIMENDUAK KYLINE TERRAZAK	25.850,00 euro
HOZKAILUA	3.335,94 euro
ROTABATORRA	1.850.41 euro
DESBROZADORA	445.45 euro
ITXITURA	382,50 euro
ZUHAITZAK ETA FRUTA TTIKIAK	4.435,00 euro
ESKULANA	3.456,00 euro
GUZTIRA	35.101, 58 EURO

Apirilaren 2ko 7/1985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D. Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuz.

EBAZTEN DUT:

BAT: Eskatutako lanak burutzeko baimena onartzea, ondorengo baldintzarekin:

Udal honetaz gain, edozein lege sektorialak horrela eskatzen duelako , dagokion beste erakundeen baimen eskuratzeko eskumena eskatzailearena izatea: ur agentzia, ingurumena, e.a.

BI: Erabakiaren berri hurrengo osoko Bilkuran ematea.

2017-21.- ERMENTAINEKO LIZENTZI ESKAERA

ERMENTAINEKO TERRAZARA IRTEERA BERRIA ETA ZORUA EGOKITZEA

Ikusirik, Ermentaineko terrazara sarbide zuzena Logikaline eraikinetik egitea nahi dela, bertako langileei aukera eskaintzeko.



ABALTZISKETA

Ikusirik, gaur eguneko terrazaren azpian dagoen biltegia egoera egokian ez dagoela eta inpermeabilizazio lanak egin beharra daudela.

Kontutan hartuaz, bi helburu hauek lortzeko ondorengo lanak egin behar direla:

- Terrazako zorua inpermeabilizatu.
- Zoruan material berria jarri.
- Gasaren bonbonak lekuz aldatu.
- Logikalinetik terrazara irteera izateko atea ireki eta bi eskailera egin.

Lan hauen aurrekontua 2.560,00 € dira.

Apirilaren 2ko 7/1985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D. Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuz.

EBAZTEN DUT:

BAT: Eskatutako lanak burutzeko baimena onartzea, horretarako dagokion zerga likidatuaz.

BI: Erabaki honen berri hurrengo Ohiko Bilkuran ematea.

HIRU: Erabaki honen berri eskatzaileei jakinaraztea.

2017-22.- HARITZEGAINENKO LIZENTZI ESKAERA

AITOR MURUAK TEILATUPEAN BI LEIHO ATERATZEA

Ikusirik, Aitor Muruak, bere etxeko teilatupeko solairuko bi leiho atera behar dituela.



ABALTZISKETA

Kontutan hartuaz, leihoen neurriak 2000 mm. zabalera x 2500 mm. altuera duela. Eta lan honen aurrekontua 3.756,00 € dela.

Apirilaren 2ko 7/1985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D. Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuz.

EBAZTEN DUT:

BAT: Eskatutako lanak burutzeko baimena onartzea, horretarako dagokion zerga likidatuaz.

BI: Erabaki honen berri hurrengo Ohiko Bilkuran ematea.

HIRU: Erabaki honen berri eskatzaileei jakinaraztea.

2017-23.- EKAINENKO ORDAINKETAK

Ikusirik, ekaineko fakturen zerrenda aurkeztu dela onartzeko, 19.012,95 eurotakoa, hain zuzen ere.

Apirilaren 2ko 7/1985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D. Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuz.

EBAZTEN DUT:

BAT: Dekretu honi eransten zaion, 19.012,95 eurotako faktura zerrenda onartzea ordainketak egiteko.

BI: Erabakiaren berri hurrengo osoko Bilkuran ematea.



ABALTZISKETA

5- LIBURUTEGIRAKO LANGILEA HAUTATZEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK EZARTZEA.

2017-2018 ikasturterako udal liburutegirako langilea kontratatzeko, herritarren artean deia egin eta balorazioa egiteko baldintzak onartzea proposatu da.

Proposatzen diren baldintzak ondorengoak dira:

2017-2018 IKASTURTERTAKO LIBURUZAINA HAUTATZEKO BALORAZIOA

Abaltzisketako Udalak, liburuzain zerbitzuak 2017-2018 ikasturtean eskaintzeko langilea kontratatzen du, astean lau orduz bi egunetan banatuta.

DERRIGORREZKO BALDINTZAK:

- Gutxieneko ikasketak: Batxilergoa edo bere baliokidea izatea deialdia egin aurretik.
- Euskararen gaitasuna titulua edo baliokidea.

BALORATUKO DIREN BALDINTZAK:

1. Herritarra izatea: Herritarra izateak liburutegiaren erabilera nagusiena, haur eta gazteek egiten dutela ikusita, berauen ezagutza zuzena izatea bermatzea nahi da 10 puntu
2. Ikastaroak: Honela baloratuko dira:
 - Informatika ikastaroak 10 puntu
 - Liburutegiaren sareko aplikazioaren ezagutza zuzena 10 puntu
3. Esperientzia :
 - Liburuzain lana egina izateagatik, urteko 1 puntu .



ABALTZISKETA

Mahaikideek ERABAKI DUTE:

1. Liburuzaina hautatzeko egingo den balorazioa onartzea.
2. Herritarren artean deia banatzea.
3. Kontratuaren iraupena, 2017ko irailaren erditik 2018ko ekainaren erdira arte izango da.

6- OLANO HANDIKO OBRA TXIKIRAKO LIZENTZI ESKAERA.

Olano handiko baserrian gaur egun dauden siloak kendu eta horma suntsitu nahi da zoladura hobetzeko.

Lan hau egiteko materialaren aurrekontua aurkeztu da, guztira 235,07 euro izanik.

Obra txikia izanik, mahaikideek ERABAKI DUTE:

1. Eskatzen diren lanak burutzeko baimena onartzea.
2. Udal Agintarauen arabera, aurrekontuaren %1 a eraikuntza eta obra zerga kontzeptuan udalari ordaintzea, hau da, 2,35 euro.
3. Eskatzaileari erabakiaren berri ematea.

7- EUDELEN GOMENDIOA UDALHITZ KONBENIOA APLIKATZERAKOAN %1EKO IGOERA ONARTZEA

Alkateak jakinarazten du, Eudelen gomendioa jaso duela, 2017 ekitaldian Udaleko langileengan ordainsarrietan igoera aplikatzeko.

Eudelek luzatu duen gomendioak honela dio:



ABALTZISKETA

LANGILEEN ORDAINSARIEI BURUZKO GOMENDIOA 2017KO EKITALDIRAKO

2017ko ekainaren 28an, **2017. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legea** argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean.

Langileen gastuei buruzkoa den lege horren Hirugarren Tituluak honako hau xedatzen du **18. artikuluan**. **Bi:** *“2017. urtean, sektore publikoko langileen ordainsarien igoera globala ez da inola ere izango 2016ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariak baino %1 handiagoa, konparatutako bi denboraldien homogeneotasunari dagokionez, hala langileei begira, nola antzinakotasunari begira”.*

2017ko uztailaren 13an izandako bileran, EUDELen Batzorde Eragileak hori aztertu du, eta komenigarritzat jo du EAEko udaletan artikulua horren interpretazioa eta ezarpena erraztea eta bultzatzea, langile publikoentzat ahalik eta onuragarrien izan dadin. Gainera, hori lagungarria izan daiteke UDALHITZ 2017 Akordio Arautzailearen negoziazioari begira. Horiek horrela, udalei, mankomunitateei eta gainerako erakunde publikoei GOMENDATZEN DIE neurri hau onar dezaten:

%1EKO ORDAINSARI IGOERA 2017KO EKITALDIAN

2017ko ekitaldian, sektore publikoko langileen ordainsarietako %1eko igoera izatea, 2016ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarietarekin alderatuta, konparatutako bi denboraldien homogeneotasunari dagokionez, hala langileei begira, nola antzinakotasunari begira, 2017. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legeak 18.2 artikuluan jasotako aukerarekin bat etorrira.

Neurria ezartzean, dagozkion doikuntzak egin beharko dira, ordainsarien igoerak urte honetako urtarriletik aurrera izan ditzan ondorioak.

Mahaikideek aho batez ERABAKI DUTE :

1. 2017 urterako, udal langileei urtarriletik hasita, beren ordainsarietan %1eko igoera aplikatzea, Eudelen gomendioa jarraituaz.



ABALTZISKETA

8.-2017/01 KREDITU ALDAKETA ONARTZEA. **KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA**

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.221.432.00.02 2017	URA. LARRAITZKO INFORMAZIO GUNEA.	100,00	315,59	415,59
1 0000.481.335.00.01 2017	LUK.GABEKO ERAKUN: HERRIKO JAIK	6.600,00	870,10	7.470,10
1 0000.623.153.40.04 2017	ZERB.FUNTZ.OND.GASTUAK: TRESNERIA	0,00	24,95	24,95
1 0000.626.333.00.01 2017	ZERB.FUNTZION.INBERTS: PROIEKTOREA	0,00	665,50	665,50
1 0000.629.165.00.01 2017	BESTELAKO INBERTSIOAK: EGUZKI FAROLAK	0,00	1.971,60	1.971,60
1 0000.601.153.20.01 2017	AZPIEG.ETA URBAN.: HERRI BIDEEN ZOLADURA	50.000,00	3.419,33	53.419,33
1 0000.623.342.00.01 2017	ZERB.FUNTZION: PILOTALEKURAKO MARKADOREA	0,00	4.200,00	4.200,00
	GUZTIRA	56.700,00	11.467,07	68.167,07



ABALTZISKETA

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.931.00.00 2017	gerakinak	11.467,07
FINANTZAKETA GUZTIRA			11.467,07

Txostena''''''''''''''''

9- GALDERAK ETA ESKAERAK.

BAT.-TOLOSALDEA GARATZEN, TOLOMENDI ETA TXINDOKIKO ITZALAREKIN UDALAK SINATU BEHARREKO HITZARMENA EZTABAIDA GAI.

Alkateak jakinarazten du, Larraitzen turismoa sustatu eta behar diren baliabideak jartzeko ahaleginetan Tolosaldea Garatzen, beste elkarte eta eragile pribatuekin batera jardun dela azken urte hauetan, lan honetan ere Abaltzisketako Udalak ahaleginak egin dituelarik.

Turismo gunearen inbertsio osoa Udalak burutu zuen Jaurlaritzaren laguntzarekin, eta bertan kontsumitzen diren ur eta argiaren gastuak Tolomendi elkartearekin partekatuz ordaintzen ziren.

Orain aldaketa bat egon dela eta hitzarmen berria egitea proposatu da, ondoren adierazten den moduan:

Tolosan, 2017ko ekainaren 23an

BILDURIK

Olatz Peon Ormazabal anderea, 34108801P zenbakidun NAN duena, Tolosaldea Garatzen S.A.ko ordezkari gisa.



ABALTZISKETA

Jon Zubizarreta Aldaia jauna, 44163244R zenbakidun NAN duena, Abaltzisketako alkate-izaeran ordezkari gisa.

Iker Karrera jauna, 44149998A zenbakidun NAN duena, Tolomendi Landa Garapen Elkarteko ordezkari gisa.

Ekaitz Zubeltzu jauna, 44169178R zenbakidun NAN duena, BiziBizikiko ordezkari gisa.

Hitzarmen hau gauzatzeko beharrezko eta behar adinako den gaitasun juridikoa eta jardutekoa elkarri aitortu ondoren,

ADIERAZTEN DUTE

- 1.- Tolosaldea Garatzenen lan ildoen barruan eskualdean produktu turistiko berriak sortzen lagundu eta daudenen sustapena egitea daudela, horretarako turistei eskualdeko baliabideen inguruko informazioa helarazteko sare eta azpiegituretan lan eginez.
- 2.- Abaltzisketako Udalak tokiko Agenda 21ak jasotakoa oinarri hartuta, turismoa sustatzea erabaki duela. Honetaz gain, Abaltzisketak turismoa eta lehen sektorea, jarduera ekonomiko gisa garatzeko elkarlan publiko-pribatuko ekimen hau indargune gisa identifikatzen duela.
- 2.- Tolomendi Landa Garapen Elkarteak landa eremuko herri txikietako azpiegiturek eta baliabideak hobetzeko helburuarekin diharduela lanean eta Larraitzeko gunek honek horretarako baldintzak betetzen dituela.
- 3.- Bizibizirik Mariren Zuhaitz Parkea kudeatzen duela eta haren inguruko azpiegituren garapenean lagundu dezaketen ekimenetan parte hartzeko interesa duela inguruaren erreferentzialtasuna handitzeko.
- 4.- 2010eko udan Larraitzen Txindokiko Itzala gunea jarri zela martxan, eta jasotako bisitari kopuruak eta haien profilak erakusten dutela kokapen honek turismo ikuspegitik duen erakargarritasuna eta hitzarmen honen bitartez arautuko den ekimenaren zilegitasuna eta interesa.

KLAUSULAK

LEHENA.- Helburua



ABALTZISKETA

Hitzarmen honen helburua Abaltzisketako Larraitz auzoan turistaren erakarpenerako gune bat sortzea eta gune hori kudeatzeko orduan, bertan jardungo duten eragile desberdinen arteko harremana arautzea da.

BIGARRENA.- Gunearen izaera

Larraitzeko ermitaren arkupean erabilera anitzeko gune bat sortu da. Gune horren bitartez honako hiru jarduerak burutuko dira:

- 1.- Informazio turistikoa zabaltzeko puntua. Bertan eskualdeko baliabide turistikoaren inguruko informazioa emango zaie Larraitzera inguratzen diren bisitariei, baina baita horrela eskatzen dutenei, Euskal Autonomia Erkidegoko informazioa ere emango zaie.
- 2.- Zuhaitz parkearen harrera gunea. Larraitzeko zuhaitz parkeko harrera gunea izango da honakoa, bertan parkearen inguruko informazioa emango da eta bertan sartzeko sarrerak salduko dira, baita Bizi-bizirik eskaintzen dituen beste zerbitzuen (turismo aktibo produktuak) salmenta gunea ere.
- 3.- Salmenta gunea. Bisitarien interesekoak izan daitezkeen produktu ezberdinak salduko dira, gunearen errentagarritasuna sustatze aldera.
- 4.- Abaltzisketa eta inguruetako produktu turistikoak sortu eta salduko dira. Turismo jasagarri baten markoan, baliabide endogenoetan oinarrituriko eskaintzak egingo dira. Lehen sektoreari lotutako eskaintzak landuko dira bestelako ekintza erakargarriez gain.

HIRUGARRENA.- Inbertsioak

Gunea eraikitzeke lanak (igeltseritza, arotzgingintza eta iturgintza) Abaltzisketako udalak hartu zituen bere gain eta harena da jabetza.

Azpiegitura horren erabilpena hitzarmen honen baitan kudeatuko da.

Nolanahi ere, hitzarmen hau sinatzen denetik aurrera, gunea atondu edo abian jartzeko beharko diren gainerako inbertsioak sinatzaileek beregain hartuko dituzte. Inbertsio horiek bi motatakoak izango dira:

- a) Gunean integratuko diren inbertsioak (seinaletika, dekorazioa,...). Kasu honetan hitzarmena sinatzen duten alde guztiek adostu beharko dute inbertsio plana eta zazpigarren klausulan adostutakoaren arabera hartuko dute parte inbertsioen kargan.
- b) Inbertsio berrerabilgarriak (hozgailua, pisua, TPV-a ...) eta enpresa baten aktibitatearekin zuzenki lotutakoak, enpresak berak ordainduko ditu eta gunea itxita dagoenean edo proiektuaren bukaeran enpresari itzuliko zaizkio.

LAUGARRENA.- Langilea

Gunea kudeatzeko langile baten kontratazioa aurreikusten da:

- a) Finantzazioa: Bizi-bizikiren izenean kontratatuko da pertsona hori.



ABALTZISKETA

- b) Pertsonaren hautaketa burutzeko orduan, Bizi-bizirik hitzarmen hau sinatzen duten alde guztien interesak hartuko ditu kontutan eta hautagaitzak batzordekide guztien oniritzia izan beharko du.
- c) Langilearen eta hitzarmen honen sinatzaileen arteko eguneroko harremana Bizi-bizirik bitartez burutuko da. Nolanahi ere, sortutako zalantza, behar eta arazoak zortzigarren klausulan aipatutako batzordean aurkeztuko dira.

Kostua 1. eranskinean zehazten da.

BOSGARRENA.- Gastu arruntak

Abaltzisketako udalak bere gain hartuko ditu argindar eta uraren gastuak 1 eranskinean aurreikusi den moduan.

Bizibizirik bere gain hartuko ditu garbiketa materiala eta telefono/ internet gastuak. Bizibizirik Tolosaldea Garatzen fakturatuko dizkio gastuak eta azken honek Tolomendi, 1 eranskienean zehazten den moduan. Bi zatitan banatuko du fakturazioa (martxo eta ekaina).

Ez dira gastu arrunta moduan ulertuko sinatzaile bakoitzaren jardueratik eratorritako gastuak, ezta edukiaren aseguruak ere.

SEIGARRENA.- Parte-hartze eredu

Hitzarmen hau sinatzen dutenek honako proportzioan hartuko dute parte sortuko diren gastu eta inbertsioen finantzaketan:

- Tolosaldea Garatzen eta Tolomendi: %50
- Bizi biziki: %50
- Abaltzisketako udala: gunearen gastu arruntak bere gain hartuko ditu (argindarra, ura, zaborrak)

ZAZPIGARRENA.- Jarraipen batzordea

Hitzarmen honen sinatzaileak gutxienez bi aldiz bilduko den batzordea osatuko dute.

Batzorde horren zeregina izango da sortzen diren zalantza, behar eta arazoei irtenbide bat bilatu eta adostea.

Bizi bizirik sasoi amaieran txosten tekniko eta ekonomikoa aurkeztuko die beste batzordekideei aurrekontuaren betetze-maila eta proiektuaren jarraipen orokorra egin ahal izateko.

ZORTZIGARRENA.- Iraunaldia



ABALTZISKETA

Hitzarmen honen iraunaldia 2017ko abenduaren 31 artekoa da. Hitzarmena luzatu ahal izango da, baldin eta alde guztiek idatziz horretarako borondatea adieraziko balute 2017 urtea amaitu aurretik.

BEDERATZIGARRENA.- Eranskinak

Hitzarmen honetan adostutakoa zehaztu eta azaltzeko hitzarmenaren zati izango diren honako eranskinak prestatu dira:

1. 2017ko gastu eta sarreraren aurreikuspena
2. 2017ko udako agenda

HAMARGARRENA.- Eskumena

Kontratugileek Tolosako auzitegi eta epaitegitara jarriko dira, dagokien eskumenari espresuki uko eginez.

Eta bat etorri hitzarmen honen edukiarekin, hasieran adierazitako toki eta egunean sinatu dute

Olatz Peon Ormazabal
Tolosaldea Garatzen

Iker Karrera
Tolomendi

Ekaitz Zubeltzu
Bizibiziki

Jon Zubizarreta Aldaia
Tolomendi



ABALTZISKETA

ERANSKINAK

1. 2017ko gastu eta sarreraren aurreikuspena

Honako gastu hauek aurreikusten dira :

KONTZEPTUA	AURREKONTUA	ABALTZISKETA UDALA	TG	TOLOMENDI	BIZIBIZIKI	DIRULAGUNTZA
Gunearen gastuak	X	Udalak bere gain				
Mugikorra/finkoa/interneta	578	-				
Garbiketa materiala/mantenu kostuak	66	-				
Lokalaren segurua	248	-				
Pertsonala	16760					
Promozioa: eskuorria,	1268					
Lehen sektoreari lotutako turismo produktuen eskaintza sortu eta zabaltzea	5080					
GUZTIRA	24000	X	4000	4000	8000	8000

Taulan zehazturiko zenbatekoek ez dute BEZa barne

Mahaikideek adierazten dut:

1. Turismo guneko argi eta ur kontsumoaren gastuak osotasunean udalak bere gain hartu behar dituela , eta ez orain arte bezala Tolomendi elkartearekin elkar banatuta.
2. Bizibiziki enpresak erabiltzen duen eremuan komon publikoak daudela eta hauen garbiketa lanak egitea, ahal den moduan, Udaleko langile arduratzen dela. Eta, komon hauek egoki edukitzea guztioi komeni zaigunez eta batez ere Bizibizikiren kudeatzaileei, komon hauen garbiketa lanetaz Bizibiziki enpresa arduratzea.



ABALTZISKETA

Beraz, guztion adostasunarekin ERABAKI DA:

LEHENA.- Tolosaldea Garatzen, Tolomendi landa garapen elkarte eta Bizibiziki enpresarekin, Udalari proposatu zaion hitzarmena onartzea.

BIGARRENA.- Bizibizikik erabiltzen duen eremuan dagoen komon publikoa garbitzearen ardura udalaren ordeztu beraiek bere gain hartzea.

HIRUGARRENA.- Hitzarmena sinatzeko Udaleko Alkatea baimentzea.

LAUGARRENA.- Eta hitzarmeneko partaide guztiei erabakiaren berri ematea.

Eta besterik ezean bilera amaitutzat eman zuen Alkateak, 21:10 etan.

Alkatearen O.E.

Idazkariak